



**EBAZPENA, 2011KO MAIATZAREN 16KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, LANPOSTUAK ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIA EGITEN DA, HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEKIN LAN EGITEKO 2011-2012 IKASTURTEAN.**

Deialdi honen xedea da, hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betezea helburua zerbitzu eginkizunetan lanpostuak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko.

Zerbitzu-eginkizuna da lanpostuen jarduera egiteko aparteko forma bat. Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu dute zerbitzu-eginkizuna Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikulua —azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatu zuen lege hori— eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena arautzeko Dekretua).

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezarri duen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik,

## **EBATZI DUT**

### **Lehenengoa.- Xedea.**

Deialdi honen xedea da I. eranskinetan ageri diren lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko.

### **Bigarrena.- Eskatzaileak**

Euskal Hezkuntza Administrazioiko karrerako irakasle funtzionarioek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan.

Halaber, bitarteko funtzionarioek ere parte hartzea izango dute. Dena dela, karrerako funtzionarioek izango dute lehentasuna.

Aurreko ikasturtean esleitu zizkieten zerbitzu-eginkizunak 2011-2012 ikasturterako luzatzeari uko egin diotenek ezin izango dute mota bereko lanposturik eskatu, eta halakotzat hartuko dira aurkeztu ziren deialdian antzeko edukia edo eduki bera zutenak. Ebaluazio-txosten negatiboa jaso dutenek ere ezingo dira aurkeztu.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko zerbitzu-eginkizunak -aurreko ikasturteetan emanak- 2011. urtean luzatzeko asmoa agertu dutenak, dena den, ezingo dira deialdi honetan eskainitako lanpostuetara aurkeztu.

### **Hirugarrena. – Eskakizunak**



Lanpostuak betetzeko eskakizunak lehenengo Eranskinean azaltzen dira. Halaber, kasu guztietan hautagaiek ziurtatuko dute urte bateko esperientzia mota bereko elbarritasuna duen ikaslegoaren irakaskuntzan. Egiaztatze hau zerbitzu-orrian agertzen ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak egin ahal izango du.

Memorian 2 puntu edo gehiago lortzea joko da baldintzatat.

### **Laugarrena.- Eskabideak eta horiek aurkezteko epeak**

Deitzen diren zerbitzu-eginkizunak lortu nahi dituzten hautagaiek **II. eranskinaren arabera**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariari egin beharko diote eskaera, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren edo Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldatzen duenak, xedatzen duen edozein erregistrotan edo herritarrei arreta emateko bulegoetan, Zuzenean erakundekoak, helbide hauetan: Kale Nagusia 85, 48011, Bilbo, Bizkaian; Andia kalea 13, 2003, Donostia, Gipuzkoan eta Ramiro Maeztu 10, behea, Vitoria-Gasteizen, Araban. Halaber, ondorengo telefono-zenbakietan informazioa eta telefono-arreta eskatu ahal izango dira: 012 Euskal Autonomia Erkidegotik, 945 018000 Euskal Autonomia Erkidegotik at eta 00 34 945 018000 atzeritik.

Eskaera hau (**II. eranskina**) puntu hauekin osatu beharko da: a) **III. eranskinaren arabera** argudiatutako merezimenduen zerrenda; b) exijitutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatze agiriak (jatorrizko dokumentazioa edo behar bezala konpultsatua) eta c) aukeratzen den lanpostuaren memoria (10 folio baino gutxiago alde batetik).

Eskaerarekin batera argudiatu eta eskaerak aurkezteko epearen barruan behar bezala egiaztatutako merezimenduak besterik ez dira kontuan hartuko. Lanpostuaren baldintzak betetzen dituzten hautagaiei baldintzak ez diren merezimenduak besterik ez zaizkie baloratuko.

Eskaerak aurkezteko epea: 2011eko maiatzaren 24era arte (egun hori barne)

### **Bosgarrena.- Lanaldia eta lan-egutegia**

Uztailaren 6ko 185/2010 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, xedatutakoaren arabera jokatu da lanaldia eta egutegia onartzeko orduan.

### **Seigarrena.- Uko egitea**

Eskatzaileek uko egin ahal izango diete eskatutako lanpostuei behin-behineko ebazpenari erreklamazioak aurkezteko epearen azken egunera arte (berau barne dela). Nolanahi ere, edozein lanposturi uko egiteak berarekin dakar, besterik gabe, deialdi guztiari uko egitea. Ez da onartuko egun hori eta geroko uko egiterik.

### **Zazpigarrena.- Balorazio-batzorde teknikoa.**

Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, kide hauek batzorde bakar batek proposatu ostean.



Langileriaren Kudeaketa Zuzendaria edo haren ordezkoa.  
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria edo haren ordezkoa.  
Hezkuntza Bereziko lurralde-kudeatzaileak edo haien ordezkoak.  
Hezkuntza-Ikuskaritzako Ikuskari Nagusia edo haren ordezkoa  
Langileriaren sekzioko funtzionario bat, idazkari arituko dena.

Era berean, irakaskuntzan ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da batzordean.

#### **Zortzigarrena- Merezimendu-baremoa.**

Hautagaien merezimenduak deialdi honetako **IV. eranskinean** argitaratutako baremoaren arabera neurtuko dira.

#### **Bederatzigarrena.- Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak egiteko epea.**

Izangaiek deialdi honetako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eta merezimenduak barematu eta elkarrizketa baloratu eta gero, deialdiaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpena jendaurrean jarriko da, Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Sail honetako web orrian; halaber, erreklamazioak egiteko hiru lan-eguneko epea zabalduko da.

#### **Hamargarrena.- Behin betiko ebazpena.**

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, batzordeak Langileriaren Kudeaketa zuzendariari helaraziko dio deialdi honen ebazpen-proposamena. Horrekin batera, honako hauek ere helaraziko dizkio: behin betiko akta edo aktak, izangai bakoitzaren merezimenduei emandako balioespenak jasotzen dituztenak, eta hautatuen azken zerrenda.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak zerbitzu-eginkizunari buruzko behin betiko Ebazpena emango du, eta Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Saileko web orrian argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

#### **Hamaikagarrena.- Administrazio-egoera**

Aukeratutako karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie 2011/2012 ikasturtean zehar aipatutako lanpostuak betetzeko.

Era berean, hautatua izan daitekeen bitarteko langilea lanpostu horretarako izendatuko dute 2011/2012 ikasturterako.

Nolanahi ere, zerbitzu-eginkizuna lanpostua lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.

**Hamabigarrena.-**

Zerbitzu-eginkizunak esleituta dituzten pertsonak praktiketako funtzionario izendatzen badituzte, eginkizunok indargabetu egingo zaizkie. Zerbitzu-eginkizuna bakar-bakarrik mantenduko da praktiken espezialitatea bat badator zerbitzu-eginkizunaren lanpostuaren espezialitatearekin.

**Hamahirugarrena.- Luzapena.**

2011/2012 ikasturterako ematen diren zerbitzu-eginkizunak hurrengo ikasturteetan luza daitezke, egindako jarraipenaren eta ebaluazioaren arabera, eta lanpostuak lekualdatze-lehiaketan bidez betetzen ez badira.

**Hamalauugarrena.-** Eskatzaileek emandako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira deialdi hau kudeatzeko. Langileria Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeko nahiz aurka egiteko eskubideaz baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Sinatzaileek berariaz baimena ematen dute beren datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, deialdiaren izapideak betetzeko, baimena ematen dute datuok argitara emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net)) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki tauletan.

**Hamabosgarrena.- Ordezko araubidea**

Ebazpen honek araupetzen ez duenari dagokionez, prozedura mailako aplikazio osagarri gisa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, erabiliko da.

**ERREKURTSOAK**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 16an.

LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIA  
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA



## I. ERANSKINA ANEXO I

### A.- ENTZUMEN-URRITASUNA DUTEN IKASLEEKIN IRAKASLE JARDUTEKO LANPOSTUAK / PLAZAS DE PROFESORADO PARA ALUMNADO CON DISCAPACIDAD AUDITIVA

IKASTETXEA / HERRIA CENTRO / LOCALIDAD	TITULAZIOA TITULACIÓN	HE PL	Zb. Nº
Araba Ibiltaria/Itinerante Oion, Gopegi, Murgia, Vitoria- Gasteiz	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje. - Zeinu-Mintzairako 3. maila / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	1
CEIP Samaniego HLHI Vitoria Vitoria-Gasteiz	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica. - Zeinu-Mintzairako III. maila / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	1
Donostia Ibiltaria/Itinerante (AransGi)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje. - Zeinu-Mintzairako 3. maila / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	2
Donostia Ibiltaria/Itinerante (AransGi)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje. - Zeinu-Mintzairako 3. maila / Lenguaje de signos: Nivel III. - Zeinu-Mintzairaren Interpretea / Intérprete de lengua de signos.	2	1
Tolosaldea/Goierri Ibiltaria/Itinerante (AransGi)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje. - Zeinu-Mintzairako 3. maila / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	2
Bergara Ibiltaria/Itinerante (AransGi)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje. - Zeinu-Mintzairako 3. maila / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	1



CEIP Landako HLHI Durango	Pedagogia Terapeutikoan edo Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu-maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica o Audición y Lenguaje. Zeinu-Mintzairako 3. mailako gaitasuna.	2	1
CEIP BASURTO HLHI Bilbao	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje - Zeinu Mintzairako 3. mailako gaitasuna / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	1
CEIP Bermeo-San Francisco HLHI Bermeo	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje - Zeinu Mintzairako 3. mailako gaitasuna / Lenguaje de signos: Nivel III.	2	1

**B.- IKUS-URRITASUNA DUTEN IKASLEEKIN IRAKASLE GISA JARDUTEKO LANPOSTUAK / PLAZAS DE PROFESORADO PARA ALUMNADO CON DISCAPACIDAD VISUAL**

IKASTETXEA / HERRIA CENTRO / LOCALIDAD	TITULAZIOA TITULACIÓN	HE PL	Zb. Nº
CRI ARABA (Ibiltaria)	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica.	2	2
CRI GIPUZKOA (Ibiltaria)	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica.	2	2

**C.- EZGAITASUN PSIKIKOA EDOTA GARAPENAREN NAHASTE LARRIA DITUZTEN IKASLEEKIN JARDUTEKO IRAKASLE-LANPOSTUAK / PLAZAS DE PROFESORADO PARA ALUMNADO CON DISCAPACIDAD PSÍQUICA O TRASTORNOS GENERALIZADOS DEL DESARROLLO**

IKASTETXEA / HERRIA CENTRO / LOCALIDAD	TITULAZIOA TITULACIÓN	HE PL	Zb. Nº
CEIP Toki Eder Ikastola HLHI (gela iraunkorra/aula estable) Vitoria-Gasteiz	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica.	2	1
CEIP San Ignacio HLHI (gela iraunkorra/aula estable) Vitoria-Gasteiz	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica.	2 SF	1



**D.- MUGITZEKO EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEEKIN JARDUTEKO IRAKASLE-LANPOSTUAK / PLAZAS DE PROFESORADO PARA ALUMNADO CON DISCAPACIDAD MOTORA**

IKASTETXEA / HERRIA CENTRO / LOCALIDAD	TITULAZIOA TITULACIÓN	HE PL	Zb. Nº
IES Mendabaldea BHI (gela iraunkorra/aula estable) Vitoria-Gasteiz	. - Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica	2	1
Vitoria-Gasteiz Ibiltaria/Itinerante CEP Lz de Gereñu LHI, IES Mendabaldea BHI, IES M. Unamuno BHI	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Audición y Lenguaje.	2	1

**E.- IKASLE GAIXOENTZAKO IRAKASLE-LANPOSTUAK / PLAZAS DE PROFESORADO PARA ALUMNADO CON ENFERMEDAD**

IKASTETXEA / HERRIA CENTRO / LOCALIDAD	TITULAZIOA TITULACIÓN	HE PL	Zb. Nº
CHDTE HTU / UTE Vitoria-Gasteiz	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica	2	1
CHDTE HTU / UTE Ortuella	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica	2	1
CHDTE Ospitaleko gela / Aula Hospitalaria Basurto	- Pedagogia Terapeutikoan trebakuntza duen maisu/maistra / Maestro/a con habilitación en Pedagogía Terapéutica	2	1



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEETA  
IKERKETA SAILA  
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
Dirección de Gestión de Personal

## II. ERANSKINA ANEXO II

ZERBITZU EGINKIZUNEN DEIALDIA HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN  
IKASLEEKIN ARITZEKO PARTE HARTZEKO ESKABIDEA  
(2011-2012 IKASTURTEA / CURSO ESCOLAR)  
SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN EN LA CONVOCATORIA DE COMISIÓN DE SERVICIOS  
PARA PRESTAR SERVICIOS CON ALUMNADO CON NECESIDADES EDUCATIVAS  
ESPECIALES

### ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

ABIZENAK / APELLIDOS.....  
IZENA / NOMBRE:.....  
NAN / DNI:.....  
IKASTETXEA / CENTRO:.....

### JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACION:

KALEA / CALLE:.....  
HERRIA / LOCALIDAD:.....  
POSTA-KODEA / CÓDIGO POSTAL:.....  
TELEFONOA / TELÉFONO:.....

### ESKARIAK LEHENTASUNEN ARABERA PETICIONES QUE SOLICITA POR ORDEN DE PREFERENCIA

HERRIA LOCALIDAD	PLAZA LANPOSTUA
1.-	
2.-	
3.-	
4.-	
5.-	

2011ko.....aren .....an / .....a.....de .....de 2011

### INTERESDUNAREN SINADURA FIRMA DEL/LA INTERESADO/A

Eskabide honetan jasotako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira. Fitxategi horren helburua da deialdi hau kudeatzea. Langileria Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatze nahiz aurka egiteko eskubideaz baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz) / Los datos contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de esta convocatoria. El responsable de este fichero es la Dirección de Gestión de Personal y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición (C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

Sinatzaileak berariaz baimena ematen du bere datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, deialdiaren izapideak betetzeko, baimena ematen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net)) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki tauletan argitaratzeko. / La persona firmante consiente expresamente que sus datos de carácter personal sean tratados de la forma y objeto señalado en las bases de la convocatoria, así como a su publicación en la página web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net)) y en el tablón de anuncios de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, únicamente en relación con los trámites propios de la convocatoria.



### **III. ERANSKINA ANEXO III**

#### **ARGUDIATUTAKO MEREZIMENDUAK MÉRITOS ALEGADOS**

1.- TITULAZIOAK / TITULACIONES

2.- PRESTAKUNTZA / FORMACIÓN

3.- HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA EDUCATIVA



## IV. ERANSKINA ANEXO IV

(Betebehar ez diren merezimenduak baino ez dira baloratuko / Solo se valorarán los méritos que no sean requisitos)

### 1.- TITULAZIOAK / TITULACIONES (gehienez 2 puntu / máximo 2 puntos)

Pedagogia Terapeutikoan habilitazioa/Habilitación en Pedagogía Terapéutica: 1p

Entzumen eta lenguaian habilitazioa/Habilitación en Audición y Lenguaje: 1p  
(Entzumen edo adimen murriztu lanpostuetarako bakarrik / Únicamente para plazas de discapacidad auditiva o intelectual)

Aholkulari Habilitazioa / Habilitación Consultor/a: 1 p

Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia Lizentziatura/Licenciatura en Psicología, Pedagogía o Psicopedagogía: 1 p

### 2.- PRESTAKUNTZA / FORMACIÓN (gehienez 2 puntu / máximo 2 puntos)

Eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak -10 ordu edo gehiagokoak- baino ez dira baloratuko: 0,10 puntu, 10 orduko / Únicamente se valorarán aquellos cursos, relacionados con la plaza a la que se opta, con una duración de 10 horas o más, a razón de 0,10 puntos / 10 horas.

Ikastaroen programaren barruan bestelako edukirik ere baldin badago, eskatutako lanpostuarekin zuzeneko zerikusia duen zatia baino ez da barematuko / En aquellos cursos cuyo programa abarque distintos contenidos, sólo se baremará la parte relacionada con la plaza que se solicita.

### 3.- HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA (2 puntu gehienez / máximo 2 puntos)

Sail honek baimendutako ikastetxe publiko edo pribatuetan zerbitzuak ematearen ondoriozko esperientzia, eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duena, eta zerbitzu-orriz edota ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiriz egiaztatua: 0,10 puntu, lan egindako hilabete bakoitzeko / Experiencia por prestación de servicios en centros públicos o privados autorizados por este Departamento, correspondiente en la plaza que se solicita, acreditada mediante hoja de servicios o certificación de la dirección del centro, a razón de 0,10 puntos/mes trabajado.

### 4.- MEMORIA (gehienez ere 4 puntu / máximo 4 puntos)

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEETA  
IKERKETA SAILA**  
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**  
Dirección de Gestión de Personal